



Zerbitzu Sozialen Legeari egindako zuzenketa baten bozketa, joan den abenduan.

EUSKO LEGEBILTZARRA

# Krisiak lege sozialen gabeziak agerian jarri ditzake

Ekonomiaren uzkurtzeak ondorio larriak ekarriko dizkie gizarteko sektore ahulenei. Horren aurrean, babesik gabe aurkitzen direnak lagundu behar lituzkete agintariek, politika sozial sendo batekin. Joan den legealdian hainbat arau onartu zituzten, ez eztabaidarik gabe.

URKO APAOLAZA

POBREZIA ERREALAREN INDIZEA %3,2an omen dago Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrela dio Jaurkitzen Pobreziaren eta Ezberdintasun Sozialen 2008ko inkestak, guztira 68.000 lagun erasaten die egoera horrek. Bestetik, ongizatea galtzeko arriskuan dauden pertsonak 450.000 baino gehiago dira.

Inkestaren emaitzak 2004koak baino zertxobait hobek dirudite –bertako indizea Europar Batasunaren azpitik dago (%5)–, baina ez dira gutxietekoak. Batez ere immigranteen artean, bakarrik bizi direnen artean, edadetuen artean... kolpatzen du pobrezia. Kontuan izan behar da

azkeneko urteetan ekonomiak gorakada handia izan duen arren, pobrezia indize hori berdintsu mantendu dela. Gainera, neurgailu ezberdinak erabiltzen badira, pobrezia tasa handiagoa da. Esaterako, zenbaitzuk *per capita*ko BPGaren %37an kokatzen dute txirotasunaren marra, ia 700.000 lagun Euskal Herri osoan, Elkartzten taldearen arabera.

**2008ko pobrezia-  
inkestak hankaz gora gera  
daiteke krisiak etxeetako  
aldabak jotzen dituen**

Dena den, 2008ko inkestaren emaitzak hankaz gora gera daitezke krisiak etxeetako aldabak jotzen dituen artean. Langabeziaren igoerak triskantza handia egingo du familien artean eta horren aurrean joan den legegintzaldian Eusko Legebiltzarrean onartutako hainbat lege sozialen dohain eta ezinak agerian geratu dira, bai eta oraindik aurrera atera ez diren beste lege batzuen beharra azaleratu ere.

**48 lege, horietatik 9 politika sozialari lotuak**

EAEko herritarrari Legebiltzarreko harmailetatik maiz iristen zaizkio



ARGAZKI PRESS / GARI GARAIALDE

Jubilatuaren kontzentrazioa Donostian pentsionisten eskubideen alde.

politika orokorreko eztabaidak, edo gatazka eta autogobernuarekin loturik daudenak. Gutxitan, ordea, politika sozialari dagokionak. VIII. Legegintzaldian onartutako 48 legeei begiratu azkarra emanek gero diagnosi hau egin daiteke: Gizarte laguntzarekin zerikusi zuzena duten legeak ez dira bostetik bat izatera iristen, berandu onartu dituzte –garrantzitsue-

nak azkeneko hilean eta *in extremis*– eta ez dituzte guzti guztiak kontent utzi, ez barruan eta gutxiago kalean. Hortik irakurketa asko egin daitezke, baina hauteskunderen gertutasuna ezin da, inolaz ere, alboan utzi.

### Zerbitzu Sozialen Legea


Agian, dimentsio eta eragin sozial handiena izan dezakeen legea Zerbi-

tzu Sozialena da. Joan den abenduan onartu zen Hirukoaren eta PSEren botoekin –Aralar abstenitu egin zen, PPK kontra bozkatu zuen eta EHAK-k osoko zuzenketa aurkeztu zuen–. Lege horrek pertsonak integratzeko arreta publikoa eskaintzen duen sarea osatzen du, eta helburua da dependentzia, larritasuna eta behar soziala prebenitzea.

Ibilbide zailaren ondoren ernatu dute legea eta Legebiltzarreko eztabaida luzea –hainbat ordutako– peripezia horren erakusgarri izan zen. Jaurlaritzaren Zerbitzu Soziale-tako sailburu Javier Madrazok sesioa bukatutakoan esan zuen: “Krisia langileak eta sektore ahulena kolpatzen ari denean, beharrezkoa da jendea babesteko duen mekanismo eta zerbitzuak martxan jartzea”. Zerbitzuen inspektzioak zeresan handia eman zuen bilkuran; azkenean Parlamentuan erabaki zen Jaurlaritzak izango duela jarraipen horren ardura. Inspektzioaren kontua oso garrantzitsua da, horren bidez segurtatu baitaiteke zerbitzu soziala eskubide “subjektiboa” dela, hau da, herritarrek administrazioari exijitu diezaioketen zerbitzuak.

Baina dudarik gabe, erreparatu eta arrangura gehien utzi duen atala ordainketa moduarena izan da, *copago* delakoarekin. Formula horren bidez onuradunak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du. Askoren ustez horrekin izaera “publikoa” zalantzan jartzen da; bide horretan, Aralarrek salatu du Jaurlaritzak ez duela bere

VIII. Legegintzaldian 48 lege onartu dituzte. Zutabeen grafikoari kasu eginez (ezkerrean), urtez urteko progresioa nabarmen ageri da. Politika sozialarekin zerikusi zuzena duten 9 lege onartu ditu Eusko Legebiltzarrak (eskuineko grafiko), horiek guztiak azkeneko urte eta erdian, eta garrantzitsuenak 2008ko abenduaren azkenetan.



## Etxebizitzaren Legea, garaiz iritsi ez den eskubidea

Azken momentura arte ibiltzearen ondorioak. Legegintzaldiko legerik anbiziotsuena ez da garaiz iritsi eta ezin izan da Legebiltzarrean onartu. Javier Madrazok oposizioko taldeei egotzi die ezintasun hori, baina berak badaki Jaurilaritzako sozio duen EAJ-k erreparatu handiak dituela Etxebizitzaren Legearekin eta hori erabakigarria izan dela proiektua atzeratzeko. Azkenean, hauteskundeetako pilota hutsa bilakatu da gazteentzako funtsezkoa den Legea.

Urrian aurkezturiko proiektuak 10 urtean 35.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du alokairuan jartzeko.



Javier Madrazo

2013rako herritarrek alokairu merke bat ziurtaturik izatea da helburua. Bide batez, etxebizitza hutsak merkaturatzeko neurriak hartu nahi ditu Lege-proiektuak, baina neurri horiek zehazteko zailtasun ugari izan ditu udal eta diputazioekin.

**Alokairuzko parke publikoaren zain**  
Proiektu horren harira, Euskadiko Gazte Kontseiluak azaldu du beharrezkoa dela

alokairuzko etxebizitzaren parke publiko bat sortzea, "boka-zio unibertsala" izango duena eta norbanakoaren eskubide bihurtuko duena etxebizitza edukitzea.

hitza bete, Legeak kudeaketa publiko "lehenetsi" egiten duelako soilik. Dena den, zaharren egoitzetako ostaturia ordaindu ahal izateko ez da erabili ahal izango onuradunaren etxebizitza –ez bada "ohiz kanpoko"–, errezeta aski kritikatu bere garaian.

Desadostasunak eta kritikak ez dira Legebiltzar barrura mugatu. Gasteizen, eskubide sozialen alde lan egiten duten hogeit hamar elkartek eta sindikatuk plataforma sortu dute zerbitzu sozial publikoen alde. Plataforma horren esanetan abenduan onartutako Legeak "ziurgabetasun bidea" ireki du. Arabako zerbitzu sozialak "pribatizazioaren aurrean hondatzen" ari direla salatu dute eta Gasteizko Udalarekin nahiz Diputazioarekin parte hartze kanala zabaldu nahi dute.

Hain zuzen, legearen asmoetako bat da EAEko hiru herrialdeetako zerbitzuak homogeneizatzea eta diputazioek eta udalek zeresan handia dute horretan, eurak baitira zerbitzu horiek eskaintzen dituzten erakundeak. Zentzu horretan, ezinbestekoa izango da datorren legegintzaldian Udal Legea adostea eta politika komun bat aurrera eramatea; ez dadin errepikatu tratu txarrak jasaten dituzten emakumeekin gertatzen dena, alegia, udal bakoitzak "ahal duen bezala" erantzuten duela, Emakundeko Izaskun Moyuaren esanetan.

### 1.703 milioi familientzat

Harrigarria da zein oparora izan den abendua lege sozialen aldetik. Zerbi-

tzuzko sozialen Legeaz gain dimentsio sozial inportantea duten beste bi arau ere onartu dira. Horietako bat da Familiari Laguntzeko Legea, 1.703 milioi euroko diru laguntzak aurreikusten dituen haurra izan dutenentzat, adopzioentzat edo familia harre-rarako. Legeak, besteak beste, Familia Kontseilua eta behatoki bat sortzea ahalbidetzen du. Proiektuak alderdi guztien babesa izan zuen, Aralar eta EHAKrena salbu. PSEko Gemma Zabaletaren ustez krisi garaietan familiei eskaintako laguntza hobetu behar da "okerrena beraiek pasa ez dezaten".

### Gizarte laguntzarekin zerikusi zuzena duten legeak ez dira bostetik bat izatera iristen, berandu onartu dira eta ez dituzte guztiak kontent utzi

Baina kasu honetan ere, ez dira alde guztiak kontent geratu. Konkrezio falta izan da Legeari gehien kritikatu zaiona, eta ez duela nobedade garrantzitsurik ekartzen: "Lehenago ere bazeuden dirulaguntzak" esan du ELAk lan kontziliaziorako aurreikusita dagoen kapitalaz. Sindikatu honen ustez, emakumeak etxean geratu eta lan merkatutik urruntzea sustatzen du araudi berriak. Hirukideri, Euskadiko Familia Ugarien Federazioari, zapora "gazi-gozoa" geratu zaio Legearekin. Alde batetik poztu egin da erakundearen artean

izandako kontsentsuagatik; bestetik penaturik agertu da egutegi zehatzik ez dagoelako. Hirukidek espero du "atez ate joan behar ez izatea" Legea bete dezatela eskatuz.

Urtea amaitu baino lehen beste lege garrantzitsu bat onartu zuen Legebiltzarra: Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea. Alderdien eta erakundeen arteko desadostasun eta eskumen arazo ugari izan ditu lege-proiektuak aurrera ateratzeko. Honen bidez Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatara iristen ez diren 20.000 pentsionistek ordainduko zaie 700 eurora iritsi arte. Gutxieneko soldata hori pobrezian ez bizitzeko nahikoa ote den, hori da airean geratu den kontuetako bat kasu honetan.

### Biluzik, bazterketaren aurrean

Berriak egiteaz gain, aurreko legeak ere aldatu dira VIII. Legegintzaldian, Gizarte Bazterketaren Kontrako Legea, adibidez. Ikusgarria izan zen joan den abenduaren 23an Ezkerraldeko eta beste zenbait herritako langabetuen elkarrekin egindako kontzentrazioa Jaurilaritzak Bilbon duen Delegaritzaren aurrean: biluzik agertu ziren *Horrela uzten gaitu krisiak* kartela soinean zutela. Modu horretan, Gizarte Bazterketaren Kontrako Legearen aldaketak "behartsuenen eskubideak murrizten dituela" salatu nahi izan zuten. Bistan da elkarre sozial horientzako Legebiltzarra hartutako neurriak ez direla krisiari aurre egiteko jantzi nahikoa. ■